

BORROKAN ARI GARA

¡ACABEMOS CON LA PRECARIEDAD!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Mitxel Lakuntza: “Aberastasuna banatzeko Errenten Itunen ordeztu, hitzarmen onak behar ditugu”

Milaka lagun kalera atera dira gaur, ELAk deituta, Maiatzaren Lehena ospatzeko eta urtean zehar lantokietan aldarrikatutakoa elkarrekin plazara ekartzeko, aurten ere Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Mitxel Lakuntzak (ELAren idazkari nagusia) Bilboko manifestazioan parte hartu du eta mezu oso zuzena luzatu du prekaritatearekin amaitzeko helburuarekin. Era berean, azpimarratu du Gobernuen eta patronalen langileen pobretzeko estrategiaren aurka tinko egingo duela ELAK: “Soldatak igotzea da konponbidea; arazoa, berriz, enpresei zergak murriztea”.

MITXEL LAKUNTZAREN HITZALDIA Jesuren Bihotza, Bilbo

Gora Maiatzaren Lehena!

Harrotasunez sentitzen dugu gaurko eguna. Milaka lagunek munduko hainbat herri eta hirietako kaleak hartuko ditugu gaurkoan. Ez dago ulertzerik ezkerria eta sindikalgintza Maiatza Lehenik gabe. Maiatzaren lehenak balore batzuk defendatzen ditu. Berdintasuna, askatasuna edo bakea. Elkartasuna da ere bada horietako bat.

ELA. Euskal langileen elkartasuna. Hala jarri zioten orain dela 110 urte baino gehiago garai hartako lehendabiziko militanteek. Hori da ere Maiatzaren Lehena, elkartasuna, okerren daudenekiko egiten den ariketa kolektiboa.

Balio horiei gaur egun gizartearen ideia bakarra inposatzen duen kapitalismoak erasotzen die; desberdintasuna eta norberekoikeria normalizatzen du, baina baita arrazakeria edo matxismoa ere.

Klima aldaketak eta haren ondorioek larrialdiko argi gorria pizten diguten bitartean, mundu mailako politikaren lehentasuna oilarren arteko borroka moduko bat da, gero eta urriagoak diren baliabide materialak eta naturalak berenganatzeko lidergoa lortzeko. Sistema kapitalistaren logika da.

DENA EZ DA GERRAREN ERRUA

Mundu mailako borroka horretan gerrak sartzen dira, Ukrainaren inbasioak ez du inolako justifikaziorik. Gerra batek dakarren tragedia eta errefuxiatuen tratuan dagoen hipokresia gogorarazten diguten milaka hildako eta errefuxiatu.

Errefuxiatua beti da errefuxiatua, siriarra, afganiarra, sahararra edo palestinarra izan. Ez du bere itxura fisikoak errefuxiatu bihurtzen, gerra edo errepresio baten biktima izateak baino. Ez gaitetzen inoiz ultraeskuindarren ideietan erori.

Gutxi dira beren diskurtsoa bake akordioa bilatzeko premian zentratzen duten ahotsak. Europan politika belizista, aurrekontu militarren gehikuntza edo NATO indartzea nagusitzen dira.

Maiatzaren Lehena bakea bezalako oinarrizko zerbait aldarrikatzeko eguna ere bada, Ukrainan, baina baita ahaztutako gerra guztietan ere (Yemenen, Saharan, Palestinan...).

ULTRAESKUINA

Maiatzaren Leheneko balioekin amaitzea ere bada **ultraeskuinaren** helburua. ELAk ultraeskuinaren hazkundearen arriskuaz ohartarazi izan du. Gelditu behar ditugu, prekarietatea sortzen duten eta desberdintasuna areagotzen duten politikak aldatuz. Gaur egun egiten diren politikak nahigabea sortzen dute gizartean, eta egun hauetan Europan ikusten dugun bezala, ezkerrek existitzeari uzten dio, langileak alde batera geratzen dira, leku huts bat uzten da eta ultraeskuinak gora egiten du.

Guk politikan sinesten dugu. Ez gaur egun nagusi den politika horretan. **Klase herrikoien bizi baldintzen hobekuntza erdigunean jarriko duen politikan sinesten dugu. Horretarako, adibidez, energia enpresei aurrez aurre begiratu behar zaie; espekulatzaileak eta iruzurgileak beren lekuan jartzeko.** Energia enpresek 6.000 milioi euro baino gehiago irabazi dituzte, eta horietako batzuk Iberdrola bezain ezagunak dira herrialde honetan. 'Zerutik eroritako etekinak' deitzen diote, zerutik ez, iruzurra jasaten duen jende arruntaren poltsikotik, gobernu guztiek onartzen duten iruzurra delako.

ENERGIA

Aste honetan esan digute akordio bat dagoela Sanchezen gobernu eta Bruselaren artean energiaren prezioak jaisteko. Inork ez daki zer ondorio zehatza izango duen ordaintzen ditugun fakturretan, dakiguna da adabaki bat izateaz gain, hilabete batzuetarako bakarrik dela.

Kexu dabil Sánchez Gálan, Iberdrolako Presidentea. Antzezten ari da. Babaki berriz irabazle atara direla, ez dela sakoneko ezer ere ez aldatuko. Egungo eredia iruzurra ahalbidetzen duena da; ura, aizea edo eguzkia gasaren prezioan kobratzea ez delako aldatuko.

Dena gerraren errua dela sinestarazi nahi digute. Arazoa, inflazioaren gorakada, lehendik dator; prezioen garestitzearen jatorria energiaren erruz bada, zergatik esaten digute soldatak ez igotzeko? Dena igo daiteke soldatak izan ezik?

Aste hauetan entzuten ari gara banketxeak eta enpresa energetioek inoizko etekin handienak lortu dituztela. Bitartean Eusko Jaurlaritzak eta Azpiazu Ekonomia Sailburuak dio soldatak igotzeak arazoa aregotuko duela. Ez, jendea probretzea ezin da sekula konponbidea izan; gure indar guztiekin egin behar diogu aurre. Bizi dugun iruzur honen aurrean soldatak defendatu behar ditugu, kosta ala kosta, langile askoren bizi baldintzak jokoan daudelako.

Eredua da arazoa, enpresa handiek gobernuak baino gehiago agintzen duten eredu ekonomikoa. Gaur egun botere publikoak ez dira interes orokorra defendatzeko gai. Onura historikoak lortzen dituzten bitartean inolako lotsarik gabe estafatzeko aukera ematen dute.

SOLDATAK ETA JAURLARITZA

Arazoa, ordea, soldatak dira. **Azken hamarkadan erosteko ahalmena % 10 galtzetik gatozenezan (% 17 sektore publikoko langileen artean), iaz enpresek irabazi historikoak aitortu zituztenezan, Azpiazu sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren eta Confebasken izenean, eskatzen diguna da soldaten igoera defendateari uko egitea. KPlari uko egitea. Duela hamarkada batzuetatik hona aberastasuna gero eta okerrago banatzen den gizartea pobretzeko estrategiaren zati bat izatera mugatzea.**

Soldatak ez dira arazoa, Azpiazu jauna, enpresei zergak jaisteak eta soldatak ez igotzeak gauza bakarra lortzen du: desberdintasuna eta pobrezia handitzea.

Soldatak ez igotzeko eskatzen digun gobernu bera aurrezten aritu da pandemian. Egon diren eta dauden behar sozialekin, Eusko Jaurilaritza harro azaldu da 1.900 milioiko gerakina duelako. Diru hori oso ondo etorriko litzateke gauza askotarako, adibidez Osakidetzaren kalitatea hobetzeko eta Covidaren kontra borrokan aritu direnen lan-baldintzak hobetzeko.

Enpresek zerga gutxien ordaintzen duten herrialdeetako bat da hau. Azken urteetan 1.000 milioi desagertu dira. 2007. urtean 2.000 milioi biltzen ziren sozietateen gaineko zergaren bidez, eta hoberi eta salbuespen guztien ondoren, orain erdia biltzen da. 1.000 milioi.

Nazioarteko Diru Funtsak ere, munduko erakunde neoliberalenetako batek, irabaziak dituzten enpresei zergak igotzea aholkatu du. NDFk ere ezkerretik aurreratu du gobernu hau.

EREDU ALDAKETA

Garrantzi handiko erronkak ditu herri honek hurrengo urteetan. Eredu energetikoa, eredu produktiboa, zaintza eredu, digitalizazioa... Bai Nafarroako Gobernua eta bai Eusko Jaurilaritza noraezean dabilta, inakzioan. Kezkatu gaude, horregatik, besteak beste, ELAk zerga aldaketa proposatzen du: batetik, aberastasuna hobeki banatzeko, eta, bestalde, aurrean dauzkagun erronka horiei aurre egiteko.

Bada, duela egun batzuk, herri honetako enpresa lobby batek. Zedarrriak, Lehendakaria haserretu omen duen dokumentu bat aurkeztu zuen. Dena oso artifiziala da, dokumentu horrek haren politikak txalotzen dituelako. Oso azal fina eduki behar da horrelako dokumentu batekin haserretzeko. Lehendakariari eskatzen diotena da herritarrak are gehiago estutzea. Zer egiteko? **Gastu soziala gehiago murrizteko, enpresei eta gehien dutenei zergak gehiago jaisteko, beste urrats bat hurrengo geltokira, Ayusoren Madrilera.**

Eta gu, herri honetan gehiengo duen sindikalismoa, kritikatzeko. Esaten dutenez, ez gara oso kolaboratzaileak. Zer da pertsona horientzat kolaboratzaileak izatea? Zerekin kolaboratu? Beheranzko hitzarmenak sinatzeko, langileak kaleratzeko eta lan-baldintzak okertzeko kolaboratu?

ELAk kolaboratuko du, elkarlanean arituko da, baina okerren daudenekin elkarlanean arituko da, herri berdintsuagoa eta etorkizun handiagokoa eraikitzeke alternatibak eta proposamenak bultzatzen lan egiten duten herri honetako erakunde sozialekin edo sindikatuekin.

PREKARIETATEA

Errealitatea ezkutatzea, prekariedade ezkutatzea, sindikatuen aurkako jardunbideak dira. Herri honetan prekariedade batzuek uste dutena baino askoz gehiago dela jabetzea da horri aurre egiteko lehen pausoa.

541.600 langile prekario daude Hego Euskal Herrian, eta horietako 311.000 emakumeak dira. Batzuek galdetzen digute, baina nondik ateratzen dira hainbeste? Azpikontratetako langileetatik, kontratu partzialetatik, praktikaldiko kontratuetatik, urtean 18.000 eurora iristen ez diren horietatik, baita herrialde honetako ABLE-ETT handienetako aldi baterako langileetatik ere; Chiviteren eta Urkulluren gobernuetan bertan aldi baterako 70.000 langile baino gehiago daude.

541.600 pertsona horiek prekarietatetik ateratzea sindikatuaren lehentasuna da eta izango da. Gure esku dagoen guztia egingo dugu. Badakigu helburu hori ez dela lortuko gai zerrendarik ez duten elkarriketa sozialeko mahaietan denbora galduta. Sindikalismoak bere historiako lehenengo egunetatik ikasi zuena eginez lortzen da hori; jendea lantoki bakoitzean antolatuta eta batuta, eta akordio onak lortzeko greba defendatuta.

Ez dugu errenta itunik nahi, hitzarmen onak nahi ditugu.

LAN ERREFORMA

Badakigu hitzarmen horiek lortzea gure esku dagoela. Lan erreformarekin gertatu dena besterik ez da ikusi behar. **Lan erreformak ez dio prekarietateari heldu. Kaleratzeak erraza eta merkeak jarraitzen dute izaten. Euskal Herriko hitzarmenak estatuko enahatxupearan jarraitzen dute, ez delako horien lehentasuna bermatzen.**

Lan erreformarekin milaka langileri kontratu finkoa egingo zitzaiola esan ziguten; orain, ordea, ikusten ari garena da sinatzen diren kontratu mugagabe horietatik erdia baino gehiagok prekarietate elementuak dauzkatela: kontratu partzialak dira, eraikuntzako kontratuak eta langile mugagabe bezala kontatzen dituzte aldizkako kontratua ere dutenak, 'fijo discontinuo' deitutakoak.

Hori egin du lan erreforma honek; kontrato prekarioei izena aldatu.

GREBA ETA BORROKA SINDIKALA

Prekarietateetik irtetea kosta egiten da, ez da erraza, kontrakoa esatea gure burua engainatzea izango litzateke. Horregatik, greba da gaur egun prekarietatearekin amaitzeko daukagun tresnarik onena.

Egun eta aste hauetan, eta zenbait kasutan hilabeteetan, herrialde honetako langile asko greban daude. Zuloagako langileak 307 egun, Novaltiakoak 1.000 egun baino gehiago, Europako grebarik luzeenean.

Hitzarmen sektorial batzuetan, Arabako metalgintzan adibidez, grebara goaz, eta beste batzuetan, Gipuzkoako paperean eta Bizkaiko metalgintzan, adibidez, beharbada horretarako bidean gaude. Eta emakumeak nagusi diren sektoreak, sektore feminizatuak, greban daude; izan ere, emakumea eta langilea izanez gero, patronalak edo administrazioek gauzak zailago jartzen dituzte.

Horregatik, sektore batzuetan, zahar egoitzetan, garbiketetan eta merkataritzan, adibidez, borroka sindikala genero arrakalaren aurkako borroka feminista ere bada. KPlaren araberrako igoerak ere ez dira nahikoa arrakalarekin amaitzeko.

Horregatik ari dira greba egunak deitzen Bizkaiko Merkataritzan, Bizkaiko Garbiketan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garbiketan eta beste hainbat sektoretan. Soldata-arrakalaren kontrako grebak ditugu Gorlizko, Bermeoko edo Deustuko Unibertsitateko Garbiketetan. Eta ez dugu ahaztu behar lau lurraldeetan greban dagoen Egoitzen sektorea. Gipuzkoan jadanik 257 egun daramatzate.

Kosta egiten da baina posible da, akordio onak lor daitezke, galde diezaietela Guggenheimeko garbiketako langileei, soldataren %20ko igoera lortu dutenak; edo aste honetan bertan, Bizkaiko autoeskolei (%36eko soldata igoerarekin) edo soldata arrakalari amaiera eman diogun Bizkaiko epaitegien sektoreari. **Gainera, horrek beste gauza bat erakusten du; ez dago antolatu ezin daitekeen sektorerik.**

Hau gure azken mezua: borroka sindikalaren beharra. Argi dugu, ez dago lasterbiderik, akordio honak lortzeko sindikalgintzak lehendabiziko momentutik ikasi zuen bidetik aritu behar dugu: antolatu, parte hartu eta borrokatu.

Egunotan Euskal Herrian bizirik dauden aipatu ditudan hamaika borroka eta greba horiek ez lirate posible izango zuek gabe, sindikatuA osatzen dugun afiliatuak gabe.

Hori da sindikatua, horregatik Maiatzaren Lehen honetan honakoa gogoratu nahi dugu: lantokiz lantoki langileak antolatzea, botere sindikala eraikitzea dela militante sindikal batek egin dezakeen ekarpenik onena. Langileak antolatu!! Gora Maiatzaren Lehena!

Ea l e r i a, 2022k i n t z a n l e a